

LEGAZPIKO UDALAREN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK



2024ko abendua



**LEGAZPIKO
UDALA**

LEGAZPIKO UDALAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Sarrera

Hizkuntza irizpideak	2
Helburu nagusiak	2
Eragin eremua	2
Erabilera normalizatua eta orokorra	2
Hizkuntza ofizial batean egindako jarduketan baliotasun juridikoa	2
Lege-oinarriak.....	2
Herritarren hizkuntza eskubideak eta Administrazioaren obligazioak	3
Kalitatezko komunikazioa	3
Diskriminaziorik gabeko hizkuntza	3

1. Kudeaketa

1.0.1 Euskararen kudeaketa orokorra.....	4
1.0.2 Lidergoa	4
1.0.3 Langileak	5
1.0.4 Hizkuntza gaitasuna	5
1.0.5 Komunikazioa	5
1.0.6 Hizkuntza klausulak	5

2. Erabilera

2.1 Zerbitzu-hizkuntza	
2.1.1 Erakundearen irudia	7
2.1.2 Herritarrekiko harremanak	9
2.2 Lan-hizkuntza	
2.2.1 Barne-harremanak	9
2.2.2 Kanpo-harremanak	10
2.2.3 Laneko prestakuntza	11
2.2.4 Baliabide informatikoak	11
2.2.5 Sortze-hizkuntza	12

Sustapen-jarduera	12
-------------------------	----

Euskaraz bakarrik noiz erabili	13
--------------------------------------	----



**LEGAZPIKO
UDALA**

SARRERA

Hizkuntza irizpideak

Hemen jasotakoak Legazpiko Udalean Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibide orokorrak dira.

Helburu nagusiak

Hizkuntza irizpideek bi helburu nagusi dituzte:

1. Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea.
2. Euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea, euskara ere zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin.

Eragin eremua

Legazpiko Udala.

Erabilera normalizatua eta orokorra

Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza da eta hizkuntza ofiziala gaztelaniarekin batera. Hortaz, Autonomia Erkidegoko erakundeek hizkuntza horien ofizialtasuna arautu eta bi hizkuntzen erabilera-berdintasuna bermatu behar dute. Helburu hori lortzeko, Legazpiko Udalak euskararen erabilera gero eta gehiago erraztuko du, bai barneko jardueretan bai kanpokoetan (*179/2019 Dekretuaren 13. art.*).

Hizkuntza ofizial batean egindako jarduketan baliotasun juridikoa

Edozein delarik ere egintza juridikoak eta administrazio-jarduketak egiteko erabili den hizkuntza ofiziala, jarduketok balio juridiko osoa edukiko dute hizkuntzaren aldetik. Edonola ere, partikularrei bermatuko zaie hizkuntza aukeratzeko daukaten eskubidea (*179/2019 Dekretuaren 14. art.*).

Lege-oinarriak

- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Erabilpena arautzen duena.
- Legazpiko udalerrian hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko udal ordenantzan (GAO, 2010/11/18).



**LEGAZPIKO
UDALA**

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.

Herritarren hizkuntza eskubideak eta Administrazioaren obligazioak

Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiek dute euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, eta botere publikoek eskubide horien erabilera bermatu behar dute.

Oinarrizko printzipio horretatik ondorioztatzen da hizkuntza eskubideak herritarrenak direla, eta ez botere publikoenak, eta azken hauei dagokiela eskubide horiek errespetatzea eta betetzen direla bermatzea.

EAEko Sektore publikoaren betebeharra da eskubide horren erabilera bermatzea, langile publikoek herritarrei eskaintzen dieten zerbitzuaren bidez gauzatzen dena.

Horretarako, Legazpiko udaleko langileek, herritarrekiko komunikazioetan, herritarrek kasu bakoitzean aukeratzen duen hizkuntza ofiziala erabiliko dute. Barneko erakunde-komunikazioak, eta beste administrazio batzuekiko komunikazioak, hizkuntza-irizpide hauetan ezarritakoaren arabera izango da, ahoz zein idatziz.

Kalitatezko komunikazioa

Legazpiko Udalak kalitatezko komunikazioa sustatu behar du, estilo zuzen, egoki eta ulergarrian, herritarrek Udalaren mezuak ahalegin handirik gabe ulertzeko eskubidea dutela jakinda.

Diskriminaziorik gabeko hizkuntza

Legazpiko Udalak hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabili behar du. Erabiltzen duen hizkerak ezin izango du inolako diskriminaziorik eragin, genero, arraza edo bestelako arrazoiak direla-eta.

1. KUDEAKETA

6 arlo:

- 1.0.1 Euskararen kudeaketa orokorra
- 1.0.2 Lidergoa
- 1.0.3 Langileak
- 1.0.4 Gaitasuna
- 1.0.5 Euskararen erabilera sustatzeko strategiaren komunikazioa
- 1.0.6 Hizkuntza-klausulak

1.0.1. Euskararen kudeaketa orokorra

Legazpiko Udalak, herritarren hizkuntza-eskubideak zaindu eta bete daitezen, hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzea erabaki du, eta bere erronken artean dago euskararen erabilera sustatzea. Udal-teknikariek antolatuko duten ekintza bakoitzean hizkuntzak nola kudeatuko diren aztertu eta erabaki beharko du, betiere euskara sustatzea helburu izanik.

Hizkuntza ofizialak kudeatzeko egitura

Helburu hori lortzeko, Legazpiko Udalak erabilera planaren eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egingo du . Zuzendaritza taldea izango da jarraipen hori egingo duen batzordea. Batzorde horretan arduradun politikoez zein teknikoek hartuko dute parte. Jarraipena lau hilabetetik behin egingo da.

1.0.2. Lidergoa

Liderren jarrera

Udaleko arduradun politikoez bere gain hartu behar dute lidergoa hizkuntza-politikan.

Arduradunek erabilera planaren diseinuan, garapenean eta jarraipenean hartuko dute parte eta jarrera proaktiboa azalduko dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezen.

Lidergoak honakoak dakartza berekin:

- Udalaren ordezkari gisa euskararekiko jarrera aitzindaria erakustea
- Lidergoa agertzea hizkuntzen kudeaketari buruz hartutako erabakietan
- Helburuak lortzen aktiboki parte hartzea eta horretarako behar besteko tresnak eta baliabideak jartzea

1.0.3. Langileak

Legazpiko Udalak onartutako erabilera planaren eta hizkuntza-irizpideen berri emango die langileei, une oro jakin dezaten nola bete behar dituzten beren lan-jardunak.

Langile berri bat lanean hasten denean “harrera linguistikoa” egingo zaio honako helburuekin:

- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea
- Langile berriaren lan-hizkuntza euskara izatea
- Udalak onartutako hizkuntza-irizpideen berri ematea eta langile berriak horien arabera jardutea lanean
- Lankideekiko eta arduradunekiko izango duen harremana euskaraz izatea

1.0.4. Hizkuntza-gaitasuna

Legazpiko Udalak hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak berrikusiko ditu plangintzaldi bakoitzaren hasieran. Helburua unean uneko egoera ezagutzea eta egokitzapenak egin behar direla antzemanaz gero, horiek egitea da.

Erakundeko arduradun politiko zein teknikoek eta langileek, haien euskara gaitasunaren arabera, ahal den neurrian, euskaraz lan egingo dute eta euskara, lan-hizkuntza gisa bezala sustatuko dute haien zerbitzutan. Horretarako, Legazpiko udalak euskaraz lan egin ahal izateko beharrezko tresna eta baliabideak jarriko ditu langileen esku.

1.0.5. Komunikazioa

Legazpiko Udalak plan estrategikoaren berri emango die herritarrei eta, horrezaz gain, bere erronketako bat euskara sustatzea dela adieraziko die.

1.0.6. Hizkuntza-klausulak

Kontratazio publikoa

Legazpiko Udalak egiten dituen kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren hizkuntza-klausulak sartuko dira. Horrela eginez, kontratu bidezko jarduerak eta zerbitzuak erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izatea bermatuko zaie herritarrei. Kontratuaren helburuari eta herritarrekiko harreman mailari erreparatuko zaio, dagozkion hizkuntza-betekizunak ezartzeko.

Administrazio-baldintza partikularrei eta baldintza teknikoiei buruzko agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira.

Herritarrei arreta ematea eskatzen duten kontratuetan edo zerbitzu bat ematea helburu duten kontratuetan, baldintza hauek beteko dira:

- Erabilzaileek eta, oro har, herritarrek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan hartuak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du zerbitzua kontratistak.

- Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko ditu enpresa esleipendunak, herritarrak berariaz inolako aukeraketarik egin ez badu.

Kontratazio-organoari dagokio hizkuntza-baldintzak betetzen direnaren jarraipena egitea, hark izendatutako kontratuaren arduradunaren bidez.

Dirulaguntzak eta hitzarmenak

Legazpiko Udalak euskara sustatzeko irizpideak aplikatuko ditu dagokion organoaren deialdi, akordio eta hitzarmenetan, betiere proportzionaltasun-printzipioari jarraituz, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.

Dirulaguntzaren xede den jarduerak herritarrekin harreman zuzena izatea dakarrenean, euskararen erabilera normalizatua bermatuko da.

Dirulaguntzen oinarrietan eta laguntzen zenbatekoa finkatzeko irizpideen artean hizkuntza ofizialen erabilera izango da kontuan, batik bat dirulaguntzaren xedean hizkuntzaren erabilerak eragin handia duenean.

Dirulaguntza kudeatzeko eskumena duten organoek neurriak hartuko dituzte onuradunek ezarritako hizkuntza betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko eta hizkuntza ofizialak zuzentasunez erabiltzen direla zaintzeko.

Irizpide hauek hartuko dira aintzat, Legazpiko Udalak emango dituen dirulaguntzei dagokienez:

- Herritarrei zuzendutako ekintzak egiteko direnean,
 - Udalak berak antolatutako jardueretan zein dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek, elkarteek, klubek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek antolatutakoetan, ondorengo arau hauek beteko dira:
 - Hemezortzi urtetik beherakoei eskainitako ekintzak
Hemezortzi urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzenduta antolatu eta gauzatuko diren ekintza guztiak euskaraz izango dira. Ekintza horien inguruko iragarkiek, txartelek, publizitateak ere euskara hutsean egon beharko dute. Dena dela, publizitatea gurasoentzat denean, bi hizkuntzak erabili ahal izango dira, beti ere, euskarazkoari lehentasuna emanez.
 - Adinez nagusi diren herritarrei zuzendutako ekintzak egiteko direnean,
Bi hizkuntzetan egiten den ohar, txartel eta publizitatean kontuan hartu beharrekoak:
 - a) Ezagunak edo nahiko erabiliak diren euskal hitz edo esaldiak euskaraz bakarrik idatziko dira.
 - b) Euskaraz eta gaztelaniaz antzera idazten diren hitz eta esaldiak euskaraz bakarrik idatziko dira.

- c) Bozgorailu, irrati eta gisakoetatik egiten den propaganda, ohar eta abarretan euskarak lehentasuna izan beharko du.
- d) Era ulergarrian piktogramen (irudi) bidez lagundua bada, euskara hutsean idatziko da.

2. ERABILERA

Bi (2) eremu, zazpi (7) arlo:

2.1. Zerbitzu-hizkuntza

2.1.1. Irudia

2.1.2. Herritarrekiko harremanak

2.2. Lan-hizkuntza

2.2.1. Barne-harremanak

2.2.2. Kanpo-harremanak

2.2.3. Prestakuntza

2.2.4. Baliabide informatikoak

2.2.5. Sortze-hizkuntza

2.1. Zerbitzu-hizkuntza

2.1.1. Erakundearen irudia

Errotuluak

- Legazpiko Udalaren irudi korporatiboa eta armarrria euskaraz egongo da.
- Udaletxe barruko errotuluak euskaraz egongo dira.
- Kanpora begirako errotuluetan euskarari emango zaio lehentasuna.

Hala ere, errotulua euskara hutsez jarri ahalko da honako kasu hauetan:

- a. Testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean.
- b. Euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean.
- c. Mezuarekin batera, piktograma bat ere badagoenean, esanahia argitzeko.



**LEGAZPIKO
UDALA**

Argitalpenak, iragarkiak, publizitatea, prentsa-oharrak,...

Oro har, Legazpiko Udalaren argitalpenak, iragarkiak, publizitatea, prentsa-oharrak,..... euskaraz eta gaztelaniaz plazaratuko dira. Euskaraz bakarrik eman ahalko dira hartzaileen tipologiaren arabera hala egin daitekeenean eta helburua euskara sustatzea denean.

Agerraldi instituzionalak, prentsaurrekoak,....

Halakorik antolatzen hasten den momentutik hartuko da kontuan hizkuntzen kudeaketa eta ekitaldiaren izaeraren eta hartzaileen hizkuntza-ezaugarrien arabera zehaztuko da euskararen erabilera.

Horrela, oro har, hartzaileak euskaldunak direnean edo euren jarduera euskaraz gauzatzen dela jakina denean, euskaraz egingo dira. Besteetan, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarari lehentasuna emanez, eta hori ezinezkoa denean, euskararen gutxieneko erabilera bermatuko da.

Jendaurreko ekitaldiak

Legazpiko Udalak antolatzen dituen ekitaldietan ezinbestean hartuko da kontuan hizkuntzen kudeaketa. Euskararen erabilera ekitaldiz ekitaldi zehaztuko da, ekitaldiaren izaeraren eta hartzaileen hizkuntza-ezaugarrien arabera. Euskara zerbitzuak, ekitaldiak antolatzen dituzten udal-langileei kudeaketa-lan hori errazteko asmoz, jarraibide batzuk ematen saiatuko da.

Edozelan ere, ekitaldi guztietan euskararen presentzia eta erabilera areagotzea izango da helburua. Euskaraz ez diren ekitaldietan euskararen gutxieneko erabilera bermatuko da eta euskarari lehentasuna emango zaio gonbidapenetan, izena emateko orrietan, egitarauetan, aurkezpenetan,.....

Edozelan ere, Udalak berak edo udalaren dirulaguntzarekin beste erakundeek, elkarteek, klubek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, 18 urtetik beherakoei eskainitako jarduerak euskaraz izango dira.

Webgunea eta sare sozialak

Legazpiko Udalaren webgunerako hasierako orria, era lehenetsian, euskarazkoa izango da. Oro har, euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko da informazioa baina informazioaren izaera, helburua eta hartzaileak kontuan hartuta, euskara hutsean eman ahal izango da.

Izapideak Internet bidez egiteko aukera ematen baldin bada, izapideok euskaraz nahiz gaztelaniaz egiteko aukera ematen dela bermatu beharko da.

Sare sozialetako edukiari dagokionez, euskaraz zabalduko da.

Mugikorretako APP-a bi hizkuntza ofizialetan egongo da. Euskara lehenetsiko da eta komunikazio eta agiri guztiak, helburua eta hartzaileak kontuan hartuta, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan bidaliko dira.

2.1.2. Herritarrekiko harremanak

◆ Ahozko harremanak

Legazpiko Udaleko langileek herritarrei lehen hitza eta lehen esaldia, **beti**, euskaraz egingo diete telefonoz nahiz aurrez aurre, eta, ondoren, herritarrek aukeratutako hizkuntzan jarraituko dute. Herritarrekin harreman zuzena duten udal langile guztiek hizkuntza gaitasun nahikoa dute baldintza hori betetzeko.

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzungailu automatikoak, telefono bidezko informazio zerbitzuak,...) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan.

◆ Idatzizko harremanak

Legazpiko Udalak bere zerbitzuak emateko erabiltzen dituen eta herritarren esku jartzen dituen inprimaki guztien bi eredu eskainiko ditu: euskara hutsean eta elebidun, euskarari lehentasuna emanez.

Legazpiko Udalak, ofizioz, dokumentu bat bidaltzen duenean eta hartzailearen hizkuntza-aukera zein den ez dakienean, bi hizkuntza ofizialetan bidaliko du.

Euskara hutsez igorriko ditu idatziak baldin eta:

- Herritarrak aldez aurretik euskarazko komunikazioa lehenesten duela adierazi badu.
- Herritarrak euskara erabili badu Udalarekin harremanetan jartzeko.

Helburua herritarrekin komunikatzea izanik, komunikazio ulergarriak zabalduko ditu Udalak.

Komunikazio telematikoari dagokionez, herritarrak aukeratutako hizkuntza erabiltzeko aukera izatea bermatuko da (eskaerak, izen-emateak, hitzorduak, kexak, dirulaguntzak...). Udal organoek bermatuko dute aplikazioek eskaintzen dituzten dokumentu estandarizatuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan lor daitezkeela.

Legazpiko Udalak dokumentu bat jaso eta erantzun behar duenean, honela jokatu du:

- Harremana euskaraz nahi duenari, edo dokumentua euskaraz igorri duenari, euskaraz erantzungo zaio.
- Ele bietan jasotako komunikazioari, ele bietan erantzungo zaio.
- Gaztelaniaz jasotako komunikazioari ele bietan erantzungo zaio, gure hizkuntza propioa balioan jartzeko.
- Beti eskainiko da etorkizunean euskaraz komunikatzeko aukera.

2.2. Lan-hizkuntza

2.2.1. Barne-harremanak

◆ Barneko hizkuntza-paisaia

Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz egongo da: tresneria erabiltzeko arauak, oharrak, apaletako errotuluak, kafe-gelako oharrak, fotokopiagailuak,....



**LEGAZPIKO
UDALA**

◆ Ahozko barne-komunikazioa

Oro har, langileen arteko komunikazioa euskaraz izango da, hau da, euskara izango da ahozko lan-hizkuntza Legazpiko Udalean.

Legazpiko Udaleko langileen hizkuntza-erabilera garrantzitsua da herritarrentzat, erakundearen funtzionamenduaren isla delako. Udal-langileen arteko komunikazioetan euskara erabiltzeak prestigioa ematen dio hizkuntzari. Hortaz, udal-langileen arteko komunikazioa euskaraz izango da eta hala izatea sustatuko da.

Lan-bilerak euskaraz izango dira, ulermena bermatuta dagoenean.

Udal-organoak:

- Osoko Bilkura, Tokiko Gobernu batzordea, Bozeramaileen batzordea eta batzorde informatiboak: euskaraz izatea sustatuko da, ulermena bermatuta dagoenean.

◆ Idatzizko barne-komunikazioa

Euskara lan-hizkuntza izan dadin bermatzeko Legazpiko Udalak euskara bere prozedura eta jardura guztietan modu orokor eta normalizatuan erabiltzea ahalbidetuko du. Udalak beharrezko baliabideak gaitu eta eskainiko ditu lan-dokumentuak euskaraz ere sortu ahal izateko.

- Barneko komunikazioa (zirkularrak, oharrak, mezu elektronikoak,...) euskaraz izango da, kasuan-kasuko salbuespenak salbuespen.
- Langileek eguneroko ohiko lana (errolda, espedienteen kudeaketa, kontabilitatea, langileen kudeaketa,...) egiteko duten SWAL aplikazioan lan horiek bi hizkuntza ofizialetan egiteko modua eskainiko du Udalak.
- Barne-bilerak (Zuzendaritza, hiru arlotako bilerak, hautaketa-prozesuetako epaimahaiak, gainerako lan-bilerak, ...) egiteko deiak eta aktak euskaraz egingo dira. Gainerako dokumentuak euskaraz egin daitezzen bultzatuko da.
- Aginte organoetako bilerak egiteko deiak eta aktak euskaraz egingo dira. Gainerako dokumentuak euskaraz egin daitezzen bultzatuko da.
- Prozedurak eta administrazio-espedienteak euskaraz izapidetuko dira eskabidea euskaraz egin denean.
- Era berean, euskara erabilera normal eta orokorreko hizkuntza izan daiteke ofizioz hasitako administrazio-prozedurak izapidetzean. Hortaz, ofizioz hasiko diren administrazio-prozedurak euskaraz hastea sustatuko da.

2.2.2. Kanpo-harremanak

◆ Euskal Sektore Publikoa

- Administrazioekiko ahozko harremanak

Udal langileek lehen hitza euskaraz egingo dute beti, eta solaskideak euskaraz egiten badu euskaraz jarraituko da elkarriketa.

- Administrazioekiko idatzizko harremanak

Legazpiko Udalak euskaraz edo ele bietan idatziko die Euskadiko Autonomia Erkidegoko beste administrazioei. Harreman hori euskaraz izatea eskatu duten erakundeekiko komunikazioak euskaraz izango dira.

Beste administrazioetatik jasotako idatzia euskaraz badago, euskara hutsean erantzungo da; gainerakoak, ele bietan.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko administrazioei bidalitako komunikazioak ele bietan izango dira.

◆ Erakunde pribatuak

- Ahozko harremanak

Udal langileek lehen hitz euskaraz egingo dute beti, eta euskaraz jarraitu solaskidearen ulermena bermatuta badago.

- Idatzizko harremanak

Erakunde pribatuekiko komunikazioak euskaraz izatea sustatuko da.

Harremanak euskaraz izango dira, alderdi biek hala adosten dutenean. Euskaraz jasotako idatziei euskaraz erantzungo zaie. Bi hizkuntzetan edo gaztelaniaz jasoz gero, ele bietan erantzungo zaie, gure hizkuntza propioa balioan jartzeko.

Udalak kontratatutako erakunde pribatuak emaitza edo dokumentu bat aurkeztu behar badu, euskaraz edo ele bietan aurkeztu beharko du, eta hala zehaztuko zaio kontratazioan.

2.2.3. Laneko prestakuntza

Euskararen erabileraren normalizazioari begira, dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea bezain eraginkorra da prestakuntza orokorra euskaraz jasotzea. Horrela, bada, Legazpiko Udalak antolatutako ikastaroak euskaraz egingo dira ahal den guztietan. Beste erakunderen batek antolatutakoetan langileek, ikastaroaren ezaugarrien arabera eta euskarazko eskaintza baldin badago, euskaraz egitea aukeratuko dute.

2.2.4. Baliabide informatikoak

Programa, aplikazio, datu-base edo tresnen euskarazko bertsioa instalatuko zaie udal-langileei eta horiek euskaraz erabiltzea sustatuko da.

Software berriren bat garatzen denean, ele bietan egiteko eskatuko zaio hornitzaileari.

Intranet sarea euskara hutsean eskainiko zaie udal langileei. Bertan egin beharreko izapideak egiteko zailtasunak dituzten langileek lankideen laguntza jasoko dute.

2.2.5. Sortze-hizkuntza

Oro har, barne-dokumentuak euskaraz sortzea bultzatuko da eta ahalegina egingo da gaztelaniara ez itzultzeko, baldin eta udalaren zerbitzura jarduten duten langileek edo korporazioko kideek dokumentu horiek ulertzeko euskara-gaitasun nahikoa dutela jotzen bada.

Edozelan ere,

- Bi hizkuntza ofizialetan argitaratu edo bidali behar diren idatziak euskaraz sortuko dira eta itzultzeko edo itzularazteko betebeharra departamentu bakoitzaren erantzukizuna da.
- Ahal den neurrian, administrazio atalean dauden baliabideak (hizkuntza eskakizuna egiaztaturik duten langileak, eredu normalizatuak, itzultzaile neuronala,... eta abar) erabilia sortuko dira dokumentu elebidunak. Nahikoa ez denean, euskara teknikaria arduratuko da testuak zuzentzen edota itzultzen.
- Itzulpen eskeak Euskara Zerbitzura bidaltzen direnean, idatzia itzultzeko arrazoizko epea aurrez planifikatuko da.

SUSTAPEN-JARDUERA

Toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean honakoa jasotzen da:

“Euskararen erabilera sustatzeko, planifikatzeko eta dinamizatzeko eskumenak aitortzen zaizkie udalei, bai udal-zerbitzuen alorrean, bai udalerriko bizitzaren eremu askotarikoetan ere” (...)

Hortaz, Legazpiko Udalak bere udalerrian euskararen ezagutza sustatzeaz gain, erabilera ere sustatuko du, zuzenean horretarako zerbitzuak eta jarduerak antolatuz edota beste pertsona edo entitate batzuek egiten dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.



**LEGAZPIKO
UDALA**

EUSKARA BAKARRIK NOIZ ERABILI

1. Udalarekin dituzten harremanetarako euskara aukeratzen duten herritar eta gizarte erakundeei bidaltzen zaizkien eskutitz, agiri, ohar eta jakinarazpenetan.
2. Idatzi administratiboak euskara hutsez bidaliko dira hala eskatu duten herri administrazioetara eta euskara hutsa erabili ohi dutenetara (UEMA osatzen duten udalerrak, HABE, HAEE, HPS,...).
3. Euskara normalizatzeko lanean ari diren enpresa, saltoki eta era guztietako entitateei eta Euskalgintzakoei bidaltzen zaizkien idatzietan.
4. Errotuluetan, seinaleetan eta antzekoetan euskaraz eta gaztelaniaz idazkera antzekoa denean.
5. Mezua piktogramen bidez adieraz daitekeenean.
6. Aditzera ematen den ekintzaren izaerak eta hartzailearen berezitasunak hala eskatzen dutenean.
7. Kale, plaza eta edozein leku publikoaren izenak, bai errotuluetan, baita izen horiek biltzen dituen kaleen izendegi ofizialean ere.